



ZIURTAGIRIA 2012 JASO DUTEN ENTITATEAK

2014ko urtarrilaren 31n, ostiralez,
izango da 2013ko
Ziurtagirien
banaketa Ekitaldia
(Udaletxean,
8:15ean)



ENTIDADES QUE HAN OBTENIDO EL CERTIFICADO 2012

El viernes, 31 de enero de 2014, se celebrará el acto de entrega de Certificados 2013 (Ayuntamiento, 8:15 h.)

* BIDEAN:

1. Andromeda Belardenda/ Herbolario Andromeda
2. Alaitz Guraso Elkarte/Apyma
3. Barañáin Auditorio Fundazioa/ Fundación Auditorio Barañáin
4. TANTATIC Diseinu eta Garapena/ Diseño y Desarrollo
5. Barañáingo Euskal Kantak
6. Barañáingo Gizarte Eskola/ Escuela Social de Barañáin
7. Barañáingo Trikitilari Eskola
8. Centro veterinario ABODI
9. Coral Barañáin Abesbatza
10. Cubillas Botika
11. Eroski Bidaia / Viajes Eroski S. Coop.

12. Euskadiko Kutxa / Caja Laboral
13. Gogorza Anaiak harategia/ Carnicería Gogorza Hermanos
14. Cubillas Botika - Beatriz
15. Iratxo Taberna
16. Jade Estetika Zentroa
17. Kaioa Taberna
18. Kukuma Gozo-denda/ Tienda de chucherías Kukuma
19. Los Porches Taberna Karrape
20. Lur Gorri Taberna Jatetxea
21. Muruzabal Bizikletak/Bicicletas Muruzabal
22. Sada Hertz Klinika/Clinica dental Sada
23. NaBai
24. Sociedad de Prevención Fremap S.L.U.
25. Studio Liburudenda/Librería

26. Tecniauto Auto Tailerra/ Taller de coches Tecniauto
27. Txaranga Igandea
28. Bildu
29. Izquierda/Ezkerra

* ZERBITZUA EUSKARAZ:

30. Akelamendi Taberna
31. Hagin Erakunde Feminista
32. Harizti Barañáingo Dantza Taldea
33. Mugarri Guraso Elkarte

* ZERBITZUA eta LANA EUSKARAZ:

34. Haizea Kultur Elkarte
35. Mungia Altzari Muntaketak
36. Sahats Fundazioa



BIDEAN

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que han adoptado y están desarrollando medidas para el uso del euskera.



GUK ZERBITZUA EUSKARAZ

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera.



GUK ZERBITZUA ETA LANA EUSKARAZ

Dirigido a las empresas, comercios y entidades que ofrecen sus servicios en euskera y lo utilizan como idioma de trabajo.



Bai euskarari (BE).- Zergatik erabaki zenuen parte hartzea Barañáingo Bai euskararin?

Gotzon.- Ba ni euskalduna eta euskaltzalea izaki oso normala iruditu zitzaidalako, eta proiektuaren nondik norakoak ezagutu ondoren are gehiago.

BE.- Zeintzuk ziren zure kezkak?

Gotzon.- Ez nuen inolako kezkarik izan. Ni naiz jendea artatzen duena hasieran, eta, gero, hiru langile dira, horietatik 2 euskaldunak; beraz, alde teknikoan zerbitzua euskaraz emateko gai gara.

BE.- Ibilbide luze horren balorazioa?

Gotzon.- Oso ona, batetik, langileek oso ongi erantzun dutelako, eta, bestetik, bezero gehiago etortzen direlako.

BE.- Zer esango zenioke Bai euskararin oraindik sartu ez denari?

Gotzon.- Nik esango nioke beldurrik gabe parte hartzeko, bi hizkuntzatan artatzen ahal direla bezeroak, haiek aukeratuko baitute zein hizkuntzatan nahi duten, eskubidea dute.

Bai euskarari (BE).- ¿Por qué decidiste participar en el proyecto Bai euskarari de Barañáin?

Gotzon.- Como soy vasco hablante y estoy a favor del euskera, me pareció normal y, cuando conocí a fondo el proyecto, me convenció aún más.

BE.- ¿Cuáles eran tus dudas o preocupaciones?

Gotzon.- No tuve ninguna preocupación. Soy yo quien atiende primero a la clientela; y, de tres trabajadores, 2 son bilingües, por tanto, estamos preparados para dar servicio técnico en euskera.

BE.- ¿Qué valoración haces del largo recorrido realizado?

Gotzon.- Muy buena; porque los trabajadores han respondido muy bien y, por otro lado, vienen más clientes.

BE.- ¿Qué le dirías a quien todavía no participa en este proyecto de Bai euskarari?

Gotzon.- Yo les diría que participen sin ningún miedo, que se puede atender a la clientela en las dos idiomas, son ellos los que eligen si quieren hacerlo en euskara o en castellano, tienen derecho a ello.

"Etorkizun handia ikusten diot zerbitzuak eta produktuak euskaraz ekoizten dituzten enpresen arteko azokari"

GUILLERMO DORRONSORO
Deustuko Business School-eko Dekanoa /
Decano del Business School de Deusto



Barañaingo Udalaren eta Sahats Fundazioaren arteko 2013ko Elkarlan Hitzarmenaren sinatze ekitaldia. Argazkian, UPN, NaBai, PSN, PP, Bildu eta I-E alderdietako udalkideak.
(José Antonio Mendive, alkatea;
2011tik 2015 bitarteko legegintzaldia).

Firma del Convenio de Colaboración de 2013, entre la Fundación Sahats Fundazioa y el Ayuntamiento de Barañáin. En la foto, corporativos de UPN, NaBai, PSN, PP, Bildu e I-E.
(José Antonio Mendive, Alcalde;
Legislatura 2011- 2015).

CADA LENGUA SUMA EN POSITIVO

Mapas vivos de las lenguas del mundo / Munduko hizkuntzen mapa biziak:
http://www.15.gencat.net/pres_casa_llengues/mapes/index.html?idioma=6

TIRRIKI-TARRAKA AURRERA

Azkenaldi honetan ezin esan Nafarroa Garaiko euskaldunok eta euskaltzaleok berri on asko jaso dugunik, gure hizkuntzari dagokionez: AEK eta IKAKo euskaltegiak agindutako diru-laguntzarik gabe utzi ditu gobernuak; ez dirudi Iruñerriko ume euskaldunek ETB 3 ikusteko biderik izango dutenik, oraingoz; D ereduaren aurkako eraso mediatiko eta politikoa ere hor dago...

Horregatik gertatzen zaizkigu are pozgarriago aurrera egiten ditugun urrats guztiak, txikiak badira ere.

Bi aipatuko ditugu hemen: Barañaingo Udalaren eta Lagunak elkartearen 2013ko plantilla organikoetan aurrepausoak egitea lortu da, batetik, guk nahi baino txikiagoak izan arren, eta, bestetik, udalak onartu berri dituen 2014ko aurrekontuetan Bai euskarari egitasmorako iaz baino 1.000 € gehiago jarri ditu, 13.000 € guztira. Igoera txikia, noski, baina egitasmo honek duen babes politikoa handitzen ari dela erakusten duena, zorionez.

Langile elebidunak arreta euskaraz eskaintzeko prestatuta daude, edota euskalduntze prozesuan aurreratuta; beraz, erabili euskara udalarekin dituzun harremanetan.



Los trabajadores y las trabajadoras bilingües, y aquellos que están avanzados en el proceso de aprendizaje del euskera, están preparados para atender en euskera a la ciudadanía que así lo demande.